



MENDIGUREN BEREZIARTU, Xabier

Kontseiluko idazkari nagusia  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 Andoain  
mendiber@mail.sendanet.es

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 165-170]

---

# Euskararen estrategiak mende berriari begira

(The strategies of the Basque language in the new century)

---

**E**uskararen Gizarte Erakundeek Kontseilua aski ezaguna da Euskal Herrian euskara normalizatzeko egiten ari den ahaleginetan. *Bai Euskarari* kanpaina entzutetsuaren buruak euskal gizarteari begiratu eta etorkizunean Euskal Herri euskaldun normalizatu bat izan dezagun zertan eta nola sakondu beharko litzatekeen esaten digu. Orain arteko izerdiak hezkuntzaren eta administrazioaren baitan bota dira; nola iritsi gaitzake, ordea, sektore pribatura?

**Z**a labor de Kontseilua en pos de la normalización del euskara es bien conocida, cabiendo citar entre otra serie de actividades la campaña *Bai Euskarari*. Su secretario general señala los puntos en que se debería insistir y las vías para conseguir una situación plenamente normalizada. Hasta ahora los mayores esfuerzos se han dirigido hacia los ámbitos de la educación y la administración; ¿cómo llegar, sin embargo, al sector privado?

**Z**e travail de Kontseilua en faveur de la normalisation du basque est bien connu, comprenant, parmi toute une série d'activités, la campagne *Bai Euskarari*. Son secrétaire général signale les points sur lesquels il conviendrait d'insister et les voies pour arriver à une situation pleinement normalisée. Jusqu'à maintenant les plus grands efforts ont été fait dans les domaines de l'éducation et de l'administration; comment atteindre, cependant, le secteur privé?



---

1. Sarrera. 2. Kontseiluaren aurrekariak. 3. Kontseiluaren egituraz, bi hitz. 4. XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari kanpaina. Ekarpinak. 5. Plan estrategikoa: 5.1. EJKo HPSaren Plangintza eta Unibertsitatea. 5.2. UPV-EHUaren Euskararen Erabileraren II. Plangintza Nagusia. 5.3. DEENPO eta Unibertsitatea. 5.4. Marko juridikoa: aldekoak eta kontrakoak. 5.5. Adituen iritzia. 5.6. Etorkizuneko egutegia eta urratsak. 6. Euskararen gizarte mugimendua etorkizunari begira.

---

## 1. Sarrera

Jadanik ezaguna da azken urte honetan gutariko askoren indar gehienak bildu dituen proiektua. Indarrak eta ilusioak jarrita ditugu Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak etorkizuneari egingo duen lanean eta, hain zuzen ere, horixe da nire gaurko mintzaldi honen zio nagusia: aurrera begirako gure lan-lerroen inguruan gogoeta elkarrekin egitea. Eusko Ikaskuntzari eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari eskerrak eman nahi dizkiet Euskararen Legearen XVII. Urteurrenari buruzko Mintegi honen baitan eskaini didaten aukerarengatik, zinez uste baitut eztabaida eta iritzi-trukaketarako gune hauek abagune ezin hobea ematen digutela eguneroko lan-eritimo azkarretik irten eta patxadaz elkarrekin hausnarketa egiteko.

## 2. Kontseiluaren aurrekariak

Jadanik lau urte iragan dira lehen aldiz orain Kontseilua denaren inguruan hizketan hasi ginela. Ez dizuet hemen azalduko, hilabetez hilabete, foro honen sortze-prozesua nolakoa izan den, besteak beste, zuetako askok oso gertutik ezagutu duzuelako. Alabaina, gogoratu nahiko nuke gaur zein zen orduko gure kezka, zein, azken batean, Kontseilua abian jartzea ekarri zuen giroa. Egunkaria Sortzen taldearen bilera batean hasi zen prozesua, 1995. urtean. Jakina den bezala, euskal kulturaren inguruko pertsonak elkartzen ditu *Euskaldunon Egunkaria*-ren organo honek eta hantxe agertu zen, ofizialki edo lehen aldiz, etorkizunari buruzko kezka. Zehatzagoa litzateke, nolana ere, orduan mahaigaineratu zela esatea, askoz lehenagotik, askori buruan baitzebiltzigen ezinegon hori. Salbuespenak salbuespen, euskalgintza kohesionatu gabeko multzo bezala ikusten zen orduan. Etorkizunari begirako norabideez hizketan hasita, kezka handiak agertzen ziren. Zein da euskararen eta euskalgintzaren jardun estrategikoa? Erantzuna ez zen erraza eta gaur egun ere, ez da batere samurra bi hitzetan erantzutea. Horretarako, hain

zuzen ere, eratu ziren ondoren Kontseiluaren sortze-prozesua bideratu zuten urratsak. Miramar Jauregira bi aldiz deitu ziren euskal kulturako eta euskalgintzako pertsonak, gogoeta honen harira lan egitera. Hasieran taldetxo bat zena gerora hazi eta hiru lantaldetan banatu zen: Gogoeta Taldea, Gizarte Eragineko Taldea eta Plangintza Orokorreko Taldea, hain zuzen ere. Zenbait hilabetez lan egin ondoren hiru txosten prestatu zituzten, ondoren euskalgintzako talde eta pertsonen artean banatu, ekarpenez hornitu eta 1997ko martxoan egindako Jardunaldietan aurkeztu eta eztabaidatu zirenak. Txosten horietan hiru ideia nagusi aurkeztu ziren:

\* Euskararen inguruan diskurtso edo mezu berri baten beharra (Euskararen mundua unibertso bat da, ez kategoriatu: Hizkuntz komunitatea. Garapen eutsigarria...)

\* Euskalgintzako taldeen artean kohesioa landu beharra.

\* Euskararen normalizazioari begira gizartean lan egin beharra (Plangintza).

Laurehun bat pertsonak esku hartu zuen Jardunaldi haien ondorioetako bat, euskalgintzako talde guztiak bilduko zituen erakunde bat antolatzearen premia ikustea izan zen. Ekimen sozialeko euskalgintzako taldeei dei zabala egin eta "Euskararen Unibertsoa" eratzen zutenek ondoren Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua izango zena antolatzeari ekin zioten. Beharrezko urratsak egin eta 1997ko abenduaren 6an Durangoko Museo Historikoan sortu zen Kontseilua.

## 3. Kontseiluaren egituraz, bi hitz

Guztira une honetan 57 elkarte dira Kontseiluko kideak, horietako zenbait talde askoren bilgune ere badirenak. Kontseiluko kide izateko prozesua irekita dago; euskararen garapen osoaren alde diharduen edozein elkarte autonomok har dezake parte bilgune honetan, Batzar Nagusiaren urteroko bileran eskabidea aztertu eta ontzat eman ondoren. Kontseiluko kideek, neurri handian, euskararen gizarte mugimendua ere osatzen dute. Osaera, eragimen eta antolaketa anitzekoak dira; kultur elkarte izaera dute gehienek, baina badira federazioak, fundazioak, elkarte profesionalak, kooperatibak edota enpresak ere. Anitz sektoretan dihardute elkarteok: irakaskuntzan, komunikazioan, lan-munduan, ikus-entzunezko zerbitzuetan, aisialdian, eta abarrear. 5.000 langile inguru dituzte guztira eta 100.000 bazkide baino gehiago ordezkatzeko dituzte.

Bistakoa da erakundeon indar soziala: ehunka mila herritarrekiko eragin zuzena baitute. Bestalde, sektore ekonomiko garrantzitsua ere bada euskararen gizarte mugimendu hau, urtero-urtero 50.000 (bi mila milioi libera) milioi pezetako fakturazioa eragiten baitu.

#### 4. XXI. mendeko akordioa: *Bai Euskarari* kanpaina. Ekarpinak

Kontseiluak, beraz, urte bete inguru darama lanean. Bere egitekoa gizarteari azaltzeko eta etorkizunari begira egiten dituen gogoetak azaltzeko, ekimen publikoa abian jartzea deliberatu zen 1997ko Batzar Orokorrean. Uztaila alderako definitu zen ondoren, udazkenean zehar, burutuko zen ekimena. *XXI. mendeko akordioa: Bai Euskarari* izenekoa, hortaz, orduantxe sortu zen. Ez zen, alajaina, nolanhiko urtea: euskara batuaren 30. urteurrena bete zen iaz eta lehen *Bai Euskarari* kanpaina, orduan Euskaltzaindiak sustatua, duela 20 urte egin zela gogoan eduki behar da.

Kanpainaren ekintzak, banan-banan, hemen aipatzeak luze joko luke. Ez da nire asmoa oraingoan egindako guztia —ez eta eginkizun geratu zaiguna— hemen zerrendatzea; kanpainak izan dituen mugarrak gogora ekarri nahi nituzke, horiek ezagututa uler baitaiteke zein diren etorkizunari begira Kontseiluak finkatu asmo dituen lan-lerroak.

Hasteko, Kanpaina honetan Kontseiluaren diagnostikoa zabaltzen eta gizarteratzen ahalegindu gara. Kontseiluak gaur eguneko egoeraz duen irakurketa baino ez da, sarritan entzun ohi diren bi diagnostikoen arteko oreka bilatzen duena, gainera. Dudarik gabe, euskarak izugarritzko aurrerapausoak egin ditu azken 20-30 urte hauetan. Nabaria da gure hizkuntzak denbora-tarte honetan lortu duena, baina egindakoak ez digu etorkizuna segurtatzen. Lurraldeari dagokionez, euskarak ofizialtasun-egoera aski desberdinak ditu une honetan: EAEn ofiziala da gaztelaniarekin batera; Nafarroan, ordea, soilik eremu euskalduntzat jotzen den zatian da ofiziala euskara, eremu mistoan estatus mistoa du eta eremu erdalduntzat jotzen den zatian euskararen presentzia benetan urria da, ofizialtasun-ezaren ondorioz, gure iritziz. Eta Iparraldean, euskarak ez du oraindik estaldura ofizial minimorik lortu. Honek guztiak izugarri mugatu du hizkuntzaren bilakaera eta, beraz, horrela ulertzen da EAEn euskararen garapena beste lurraldetan baino askoz handiagoa izatea. Beraz, babes ofiziala, lege aldeko estaldura izatea, funtsezkoa da lurralde osoan.

“ **Hauxe izan da, nire ustez, kanpainaren ekarpenik garrantzitsuenak: batera lan egiteko deialdia, etorkizun-estrategiak elkarrekin eta lankidetzan gauzatzeko gonbitea** ”

Etorkizunerako funtsezkoak diren erabilera-esparruei erreparatzen badiegu, euskarak zeregin handia du oraindik. Hezkuntzan nabaritu da azken urteotako jauzirik garrantzitsuenak, bereziki EAEn, eta horri esker, gainera, pixkanaka ugaltzen ari da hiztun-kopurua. Nafarroan eta Iparraldean ere aurrera doa, baina abiapuntua askoz atzerago dago. Komunikabideak, lanaren mundua, etab. oso berandu hasi dira euskalduntzen eta zatika gainera. Etorkizuna segurtatzea, beraz, arlo horietan guztietan estrategia komunak ezartzetik etorriko dela uste dugu. Horrek gizarte osoaren eskuhartzea eskatzen du, euskararen gizarte mugimendurekin batera, gizarteko eragile guzti-guztiak, arlo guzti-guztietakoak batera aritzea, hain zuzen ere.

Hauxe izan da, nire ustez, kanpainaren ekarpenik garrantzitsuenak: batera lan egiteko deialdia, etorkizun-estrategiak elkarrekin eta lankidetzan gauzatzeko gonbitea. Euskal gizartearen heldutasuna erakusten du honek, nire ustez. Gizarte garatu guztietan, izan ere, menpekotasunik gabeko jardun komunak lantzen ari baitira anitz arlotan: ekologian, gizarte egituraketan, etab. Euskarak ere lanerako estilo berri hori jaso behar duela uste dugu.

Kanpaina, jakina den bezala, urrian hasi eta abenduan amaitu zen, denok gogoan dugun bost estadioetako jende bilketa erraldoiarekin. Gizartearen atxikimendua jaso du Kontseiluaren proiektuak aho batez; gizarteko sektore guzti-guztiekin hitz egin du, guztiei jakinarazi die bere proiektuaren berri eta guztiei eskatu, halaber, parte hartzea. Komunikabideen aldetiko estaldura garrantzitsua erabakigarria izan da ekimen honen arrakastan. Garrantzitsua ez ezik, funtsezkoa ere suertatu da herriz herriko batzordeen laguntza (200etik gora) eta

## “ Kontseiluak sentiberatasun, ideologia eta pentsamolde guztiak hartu nahi lituzke bere baitan, pluraltasun horrek bermatzen baitu etorkizunerako derrigorrezkoa dugun adostasun-giroa ”

ekarpena, mezuok eta kezak gizarteratzeko bitarteko izugarria izan baita.

Kanpainaren testuinguruan, halaber, 1998ko abenduaren 23an Iruñean sinatu zen Bai euskarari Akordioa, UNESCO erakundearen begiradapean. Euskal gizarteko 22 eragile nagusik beren hitza eman zuten horren bitartez euskararen normalizazioa bermatuko duen prozesuan parte hartzeko eta gonbit bera gizarte osoari helarazteko. Lehen sinaketa horren bitartez, euskararen garapenerako dinamika zabala abiarazi zuen Kontseiluak eta azalduko konpromisoari jarraiki, gizarteko eragile guztiei zabaldu zaie bidea.

Akordio politikoak ere sustatu ditu Kontseiluak eta, horrela, 1998ko abenduaren 21ean Euskararen Normalizaziorako konpromiso politikoak izenekora bildu ziren Euskal Herri osoko hamar alderdi politiko; euskararen garapenerako urrats garrantzitsu hau Normalizaziorako Akordio Politikorako lehen urratsa izan daitekeela uste dugu. Lehen pausoa baino ez da, normalizazioak adostasun ahalik eta zabalena eskatzen baitu. Behin eta berriro esan izan dugun bezala, Kontseiluak sentiberatasun, ideologia eta pentsamolde guztiak hartu nahi lituzke bere baitan, pluraltasun horrek bermatzen baitu etorkizunerako derrigorrezkoa dugun adostasun-giroa. Gonbita behin eta berriro zabaldu zaie guztiei eta hala egiten segituko du Kontseiluak.

### 5. Plan estrategikoa

*Euskararen Unibertsoa* mugimenduak ia bere hasieratik eta ondoren Kontseiluak oso garbi

izan dute gizartean euskararen normalizazioa bultzatzeko eragin sakoneko ekintza bat burutzearen premia. Ekintza horrek, gainera, euskararen alde ohiko atxikimenduez harago joan behar zuen eta gizarteko eragile nagusiak protagonista bihurtzea bilatu behar zuen. Hauex da, hain zuzen ere, Bai Euskarari akordioaren atzean datzan filosofia: borondatezko prozesu eskuhartzailea abian jartzea.

Horretarako Kontseilua hasieratik beretik harremanetan jarri zen zenbait enpresa espezialdurekin bi tresna lantzeko: Euskararen Neurgailua eta Plangintza estrategikoa deituak. Egitasmo horiek aurrera doaz LKSren eskutik eta *Lanordu bat Akordio Sozialaren alde* ekitalditik lortutako diruaren bidez finantzatu dira. Lehen tresnak urtez urte euskalgintzako mugimenduen berri izan eta adierazleen jarraipena egiteko aukera eskainiko du.

Bigarrenak, Akordioa sinatu duten Hego Euskal Herriko 647 gizarte eragileen ordezkariekin egindako bileretan sektore bakoitzeko egoera aztertu eta neurri normalizatzailerak proposatu ditu, gero bakoitzak borondatez eta pixkanaka praktikan ezarriko dituenak. Egitasmo hori aurrera eramaten gaur Kontseilua osatzen duten erakundeek partaidetza handia izango dute. Kontuan hartzen bada lurralde berean sektore batetik bestera euskararekiko sentiberatasun aski ezberdinak daudela, eta are desberdinagoak lurralde batetik bestera, honelako egitasmo orokor eta ahalik eta zabalena bat oso komenigarritzat dauka Kontseiluak epe arrazoizko batean normalizazioaren bidetik jauzi kualitatibo bat eman ahal izateko, gizarte eragileen inplikazioarekin.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sarritan jendaurrean egindako adierazpenetan eta argitara emandako testuetan behin eta berri jakinarazi du Euskararen Plan Estrategikoa (EPE) duen garrantzia gure hizkuntzaren geroa bermatu eta garatzeko.

Horregatik zentzu horretan, alde batetik, erakunde desberdinek alde aurretik egindako azterketa eta ikerketak oso kontuan hartuko ditu, hala nola: Eusko Jaurlaritzako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, UPV-EHUaren Plana, Donostiako Euskararen Erabileraren Normalizaziorako Plangintza eta abar; eta bestetik, alor bakoitzean adituak direnekin elkarrizketak burutuko dira bakoitzak hain ongi ezagutzen duen sail horri buruz duen hautempena baliarazteko.

24 alorretan egoeraren xehetasunak aztertzeak luze joko lukeenez, horietako bat den Unibertsiteatea hartuko dugu adibidetzat, gainerakoetan egingo denaren eredu gisara.

## 5.1. EJKo HPSaren Plangintza eta Unibertsitatea

Adibidez, Unibertsitatearen alorrari dagokionez eta Eusko Jaurlaritzaren Plangintzatik ateratako ondorioei dagokienez, aldeko faktore batzuk nabari dira: euskarazko irakaskuntzaren eskaria gero eta handiagoa da eta B eta D eredueta haurrek euskara maila egokia lortzen dute, irakurtzen, idazten eta hitz egiten. Beraz, irakaskuntza ertainean gero eta ikasle elebidunagoak eta euskaraz ikasten ohituagoak nabari dira.

Irakasleei dagokienez ere aldaketa bera nabari da: 96-97 % 5etik gaur egun % 60rako jauzia eman da. Nafarroan ere D ereduaren aurrerakuntza nabaria da.

Baina ahuleziei dagokienez esan beharra dago irakaskuntzan egindako euskalduntze-ahaleginak ez duela izan jarraipen bera enpresamunduan, ez kulturaren, ez kalean, oso bereziki euskara bigarren hizkuntza dutenen artean. Horretan badu eragina irakasle euskaldunen urritasunak. Bestalde, EHUak oraindik ez du erabaki zein unibertsitate-eredu nahi duen, elebakarra ala eleanitza, eta zein ikasketari eman behar dion lehentasuna euskaldungoaren aldetik.

## 5.2. UPV-EHUaren Euskararen Erabileraren II. Plangintza Nagusia

UPV-EHUko Plangintzan euskararen egoerari buruzko datu esanguratsuak ageri dira: derrigorrezko kredituen % 52 irakasten dela euskaraz, irakasle elebidunen kopurua asko igo bada ere, % 23 baizik ez dela; alor batzuetan, teknikoetan batez ere, plazak betetzeko arazoak daudela; 1998 arte 65 liburu argitaratu direla euskaraz, gero eta gehiago direla ingelesez argitaratzen diren lanak, nahiz eta hizkuntza moderno guztietan idatzi eta kaleratu lanak; doktorego tesien % 10 bakarrik argitaratzen dela euskaraz eta horrek baduela zerikusia lantaldearekin eta tesia zuzentzen duten irakasleekin, baita euskarazko testuen argitalpenean eta beste zenbait lan eta materialen hedapenean.

## 5.3. DEENPO eta Unibertsitatea

Plangintza honetan, unibertsitatearen alorrean euskara bultzatzeko ekimenari dagokionez, A ereduak ziurtatzen duen maila apalaren aipamen zuzena egiten da. Bestalde,

euskarazko zailtasun gehitu bat suposatzen duelakoa eta euskaraz hitz egiteko nolabaiteko "lotsa" dagoen pertzepzioa ere hautematen ditu.

Lan-munduko euskararen erabilera mugatua eta gaztelaniak hedabideetan duen presentzia sendoa ere euskarak bizi duen egoeraren kontrakotzat aipatzen dira.

Azkenik, euskararen politizazioarako egon daitekeen joera eta biztanleriaren higikortasunak ere eragin mugatzailea izan dezakete euskararen erabileran.

Aldeko faktoreen artean, irakasleriaren euskalduntze-prozesua, euskal hedabideen aurrerapena, euskarazko material ugaria, euskaltegi eta euskararen irakaskuntzari ematen zaizkion laguntzak, eta gizartearen euskararekiko ageri den joera baikorra aipatzen dira.

## 5.4. Marko juridikoa: aldekoak eta kontrakoak

Espainiar Konstituzioak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Agintaritzaren esku uzten du euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak ezartzea.

Horrela, bada, azaroaren 24ko 10/82 oinarriko legeak Euskararen Erabilpena Arauzkotzen du: 15. artikulua ikasle guztiei irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea xedatzen du hezkuntza maila desberdinetan. 26. artikulua adierazten du Euskal Herriko agintariek euskara bizitzaren alor guztietan erabil dadila sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliabideak jarriko dituztela.

Halaber, Auzitegi Konstituzionaleko bi sententziak ere (martxoaren 19ko 56/1990 eta abenduaren 21eko 214/1989) Erkidegoak berea duen hizkuntza Administrazio Publikoen aurrean erabiltzeko eskubidea ziurtatzera eta Udal Administrazioak, beren eskuduntzen erabilpenaren mugetan, bi hizkuntza ofizialen erabilpenaren lege-aginduari erantzutera behartzen ditu.

## 5.5. Adituen iritzia

Atal honetan, alorreko gizarte eragileekin izandako elkarrizketen emaitza jasoko da. Alor edo sektoreak euskarari buruz duen pertzepzioa, bertan euskara urrerarazteko egin diren urrats nagusiak, sektoreko gizarte eragileak euskara bultzatzeko ekimenetan zenbateraino inplikatu diren, sektoreak



dituen aldeko eta kontrako faktoreak, eta etorkizunari begira, epe labur edo luzera, sektoreak egiten duen apustua aztertuko dira eta erantzun horien guztien ondorioak bildu eta atal bakar batean iruzkinduko dira, aipaturiko puntuen ildotik.

Lantaldeko arduradunak AMIA (DAFO) Matrizearen proposamen bat egingo du sektore bakoitzeko lehen bileran, euskararen egoeraren diagnostia egiterakoan, lan-dokumentu gisa erabiliko dena.

## 5.6. Etorkizuneko egutegia eta urratsak

Planaren Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan jadanik hasita dago maiatzeko sinaketarekin eta ekainaren bukaerarako diagnostikoa alorrez alor egina egongo da. Irailaren bukaeran helburuak eta ildo estrategikoak finkaturik egongo dira eta hurrengo hilaren bukaeran, urrian, ekintza proposamenak burutuko dira. Horrela, azaro-abendurako txosten orokorrak eta lantaldekakoak amaituko direlarik, urtarriletik martxora bitarteko epean gizarte eragileek konpromisoka hartuko dituzte planak gomendaturiko ekintzen artetik. Aste Santutik aurrera konpromiso horiek ekintzaratu egingo da.

Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoari dagokienez, prozesua bera izango da, baina aurtengo uztaila-abuztuan egingo da gizarte eragileen hautaketa, iraila-urria bitartean harremanak egingo dira eragileekin eta azaroan burutuko da *Bai Euskarari Akordioa*-ren sinaketa. Beraz, abenduan ekingo zaio plana antolatzeari eta ondoren Hegoaldeko urrats berak egingo dira.

Esan beharrik ez dago, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean epeka ebaluaketak egingo direla hartutako konpromisoak betetzen diren ikusteko. Ondorengo ekintza gisa, Kontseilua Plan hau udalerrri mailara hedatzea pentsatzen ari da. Kontseiluak uste du Plan Estrategiko hau abiaraztea hasiera eta lehen urrats bat dela, ondoren beste pauso batzuk emateko ezinbesteko tresna eta dinamika eragilea dela eta denok amets egiten dugun euskararen normalizazioa hurbilago ikusiko dugula prozesu hau garatu eta gero.

## 6. Euskararen gizarte mugimendua etorkizunari begira

Iraganean gizarte mugimenduaren garrantzia ukazina eta erabakigarria izan bada



*Bai Euskarari* kanpainako logoa.

euskararen aurrerabiderako —autonomiaren aurreko urteetan ez ezik baita azken hogeitau urteotan ere— etorkizunean Euskal Herri euskaldun normalizatu bat lortu nahi bada ezinbestekoa izango da bere ekarpena, edozein gizarte aurreratutan hainbat talde antolaturen ekarpena behar-beharrezkoa den bezala.

Horretarako jadanik *Euskararen Unibertsoa* mugimenduan hasi eta Kanpainan jarraitu dugun diskurtso berritza aurrera eramanez eta gizarteratu behar da. Halaber, euskal gizartean etena zegoen garaiko konfrontazioko mezu eta jokamoldeak baztertu eta administrazioen planekiko osagarritasuna bilatu beharra dago, eta lankidetzaren kultura berria sustatu beharra bakoitzaren izaera, eremua eta autonomia errespetatuz. Badakigu prozesu horiek ez direla perfektuak izango hasieratik beretik, baina epe baten barruan estilo eta giro berri hori lortzen ikasi beharko dugu, aurrerantzean ez baitu zentzurik beste ezein proposamenek.

Azkenik, honek guztiak euskalgintzaren kohesioa landu eta sakondu behar du helburu komunak dituzten egitasmoak konpartituz. Kohesio hori pixkanaka gauzatuz doan zerbait da, Kontseiluaren aurretik eta Kontseiluarekin areagotu egin da, eta ez dago euskalgintzak gizartean euskara normalizatzeko egiten dituen ahaleginez aparte ulertzerik. Txanpon beraren bi alde bezala dira eta oreka egokian ahaleginak barrura eta kanpora bideratzea eskatzen du, beti ere garbi edukiz euskalgintza guztiari ongi datorkiola euskara eta euskal gizartea sendotzen eta aberasten duen edozer, nahiz eta bakoitzak bere helburu propioa eta desberdinak izan. Horretan lortzen diren batasuna eta indarra dira Kontseiluaren kapital eta berme nagusiak.